

Azken 40 urteetan zehar, euskal gizarteak bere nortasun ezaugarrietako bat bihurtu ditu gizarte-politikak. Era berean, Euskadi aitzindaria izan da Gizarte Zerbitzuen arloko ikerketarekin, ebaluazioarekin eta berrikuntzarekin lotutako hainbat ekimen bultzatzen. **Eguía-Careaga Fundazioak, SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzuaren** bidez, ahalegin horretan lagundu du, administrazio publikoekin, unibertsitateekin eta arreta zerbitzuak ematen dituzten eta/edo eragindako pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeekin batera.

Lan horretan sakontzeko, Fundazioak mintegi ziklo bat antolatu du. Mintegi horietan, adituen laguntzarekin, gizarte-politiken arloan zerk funtzionatzen duen dakigunari (eta ez dakigunari) buruz hitz egin nahi da. Horrela, Fundazioak gizarte-arrisku zahar eta berriei aurre egiteko eta herritar guztien ongizatea eta bizi-kalitatea bultzatzeko eraginkorrak direla frogatu diren neurriei buruzko ebidentzia identifikatzen eta zabaltzen lagundu nahi du.

Solasaldi horietako lehena mendekotasunaren arretari eta iraupen luzeko zainketei buruzkoa izan zen. Zehazki, adineko pertsonen, desgaitasunen bat dutenei edo mendetasunen bat dutenei ingurune komunitarioan behar adinako kalitatea eta intentsitatea duten zaintza-zerbitzuak eskaintzea ahalbidetzen duten programak, estrategiak edo esku-hartzeak zein diren jakiteko ebidentzia aztertuko da.

Bigarren Solasaldiak, 2026an, **Adimen Artifiziala Gizarte Zerbitzuen hobekuntzan aplikatzea** izango du ardatz. Bigarren Solasaldi honetan, alde batetik, teknologia arloko eta, bestetik, eta eremu sozialagokoa, adituen arteko elkarrizketa sortu nahi da, AA gizarte zerbitzu eta prestazioetan ezartzean sortzen diren erronka nagusiak ikusarazteko eta horiei erantzuteko. Solasaldia aberasteko, erreferentetzat jotzen diren hainbat esperientzia praktiko aurkeztuko dira.

Solasaldi-ziklo honek **José Eguía Careagaren** ibilbidea aitortzeko ere balio izan nahi du. SIISen eta Eguía Careaga Fundazioaren bultzatzailea, bai eta desgaitasuna duten pertsonen arretarekin lotutako beste proiektu batzuen ere. 2024ko apirilean hil zen.

Zerk funtzionantzen du gizarte-politikan?

2. saioa

Aaren aplikazioa Gizarte Zerbitzuen hobekuntzan

2026/05/14. Miramar Jauregia. "Errege Jangela" aretoa (Donostia)

11:45 **Harrera**

12:00 **Elkarrizketa nagusia**

Borja Pérez -Datua-ko CEOa-, adimen artifiziala politika publikoetan inplementatzeko pertsona aditua, eta **Bárbara Branchini** -Fresno Consulting-eko kidea-, gizarte-politikan aditua eta gizarte-politiken diseinuan eta ebaluazioan adimen artifiziala txertatzearen defendatzailea, elkarrizketan. **Adriana Martínez Sans**, APTEs - Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkarteko zuzendariak elkarrizketa gidatuko du.

Hiru aldeko elkarrizketa honen bidez, gizarte politikan AA ezartzeko oztupo nagusiak jorratu nahi ditu, bai eta egungo egoerak ikusten uzten dituen irtenbideak ere, ikuspegi praktiko batetik eta errealitateari oso lotuta.

13:30 **Esperientzia Interesgarriak**

- **DPR sistema: Eskaera, arazo eta erantzun sozialen identifikazio automatikoa. Bartzelonako udala.**

Adimen artifizial aurreratuan oinarritutako erabakiei laguntzeko sistema. Hizkuntza naturalaren prozesamendua erabiltzen du informazio-sisteman datuen erregistroa arintzeko, profesionalen karga optimizatuz. Gizarte-zerbitzuetako 40 zentrotan ezarri da.

Ana Milián. *Bartzelonako Udaleko Gizarte Zerbitzuen eraldaketa digitaleko proiektuen saileko arduraduna.*

- **Gizarte-prestazioetarako irizpideak betetzen direla automatikoki egiaztatzea. Kataluniako Generalitatea. Eskubide Sozialen Saila.** Prozesuak automatizatuz, herritar batek prestazio sozial espezifikokoak jasotzeko ezarritako irizpideak betetzen dituen egiaztatzen du: oinarritzko premiak, etxeko gastuak, KGP erretiroa, erretiroko KGP osagarria eta jaiotzagatiko, harreragatiko eta adopzioagatiko prestazioa.

Jordi Amat. *Kataluniako Generalitateko Gizarte Eskubide eta Inklusio Saileko Informazio eta Komunikazio Teknologien arloko zuzendaria.*

14:45 **Luncha**